

Heize estatutuak, bigarren artikulua a) atala:

- a) **Eskola Publikoa defendatu gizarte kohesioaren eta aukera berdintasunaren berme gisa.**

Heize elkartearen sorrerako lehen helburu fundazionala dioena gogora ekartzea egoki eta pertinentea dela deritzogu adierazpen honen hasiera gisa.

Goizean zehar ikusi ahal izan dugun bezala euskal hezkuntza sistemak zein eremu eta ikuspegi orokorragoa duten ikerketa, txosten eta plan ugari ditugu mahai gainean. Diagnostikorako datu zehatzak eskaintzen digute eta egoeraren nondik norakoak alde askotatik begiratzeko aukera eskaintzen digute. Datu horien guztien interpretazio ezberdinak egin dira azken denboratan eta guztiek errealitate argia ageri uzten dute:

Ikastetxeen arteko ezberdintasun handia dago ikasleriaren izaera sozioekonomikoari begira.

Behingoz gaiari beharrezkoa duen arreta ematen hasi zaio hiritar askoren lan isil eta esfortzuari esker. Diagnostikoan bat etortzeak konponbidetik hurbilago jartzen gaituela uste dugu. Foro ezberdinetan aspalditik aipatzen genuen Euskal Eskola Publikoan bertatik bertara ezagutzen dugun errealitate honen dimentsioa. Urte luzetan lanean egon gara ikastetxeetan adoretz eta gizartearekiko konpromiso osoz, askotan beharrezkoa den aitortzarik gabe.

Zergatien zerrendatze bat egitea ezinezkoa da arazoaren iturburuak anitzak baitira baina laburbildu beharko bagenu hauek lirateke, besteak beste: familien erabakitze aukeraren atzeko gaizki-ulertu interesatuak, matrikulazio prozesuan eman izan diren trikumailuak eta mugikortasunak sareen artean, aniztasuna gehitzen den heinean bertakoen aldegitte prozesuak, gizartearen hipokresia aniztasunaren onuraren diskurtsoa eta egiazko hautua egin beharraren artean...

Heizek, eta haren aurretik Bihe eta Sareanek, gai hauen guztien eraginaz ohartarazi izan ditu administrazio ezbedinak. Gaur egun jarraitzen dugu gai hauen garrantzia agerian jartzen eta neurri zehatzen aplikazioa eskatzen dugu beraien eragina apalduz joan daitezen hezkuntza-bazterketa arriskuan dauden ikasleen metaketa estrukturala geldiarazteko eta maila egokiago batzuetara bueltatzeko.

Hezkuntza bazterketa ekidin daitekeen gaitz bat da.

Berau elikatzen duten zenbait jarrera konplize salatu beharrea aurkitzen gara. Inor baino hobeto dakigu gure inguruko herri, auzo eta hirien osaketa nolakoa den eta askotan bertako ikastetxeek, itunpeko zein publiko ez dutela horren islada naturala aurkezten. Datu zehatzekin errealitate honen dimentsioa zehaztea egoki den bezala, berau berbideratzeko neurriak behar direla ere uste dugu. Administrazioei dagokie horien aplikazioa artikulatzea eta betearazte maila kontrolatzea. Hiritar oso eta konprometitu garen heinean geuri dagokigu disfuntzioak dagokion bideetatik agerian jartzea. Botere publikoen erantzunkizuna eta gizarte kontzientzia ezinbesteko elementuak dira lan honetan.

Zergatik ekidin behar da hezkuntza bazterketa?

Sistemaren errendimenduari kaltea eragiten diotelako. Sistema baztertzailak (dena delakoa izan bere jatorria) inklusiboagoak diren sistemen aurrean emaitza global okerragoak ematen dituzte.

Sistema baztertzailak ez dute modu egokian gizarteratzen bere ikaslegoa. Ez die bere inguruko gizartean ematen den aniztasunarekin harreman normalizatuak izateko aukera eskaintzen eta eskolatik haratago dagoen gizartearen irudipen desbirtuatuan oinarritutako ezagutzan oinarritzen du bere jarduna.

Azkenik, behar handiena duen ikasleriaren hezkuntza arrakasta, hobekuntza itzaropen aukerak ebaki egiten dituelako.

Euskal Eskola Publikoa Gaur Bihar ekimeneko partaide gisa, bat egiten dugu bere printzipiotako batekin, ots: gizarte honetako hiritar orok du eskubidea gaur egungo gizartean osotasunez bizitzeko eta parte-hartzeko zer nahi izan bere gaitasun, ezberdintasun, izaera etabar.

Bide horretatik ezinebestekoa deritzogu egun gure sisteman ematen diren hezkuntza-bazterkeri egoeren aurrean beharrezkoak diren neurriak aktibatu eta aplikatu behar direla.

Hezkuntza bazterkerian aspektu ezberdinen arabera sorburuak definitzen ditugu:

Hiri bazterketa edo bazterketa urbanoa

Gure herri eta hirietako zenbait auzoren konnotazio sozioekonomiko eta kulturalak eta berarekin dakarren heterogeneitate faltak eragin zuzena du gure ikastetxeetako hezkuntza bazterketarekin. Ezinbestekoa deritzogu administrazio ezberdinen arteko elkarlana eta koordinazioa hiri planifikazio ekitatiboagoak sustatzeko. Bideratuta ez dauden egoeretan esku-hartze zuzena eta ausartak aktibatu behar direla uste dugu. Horrelakorik egin ezan inguruko herrialdeetan ikusi ahal izan dugu eman diren bilakaeren ondorio latzak. Jakina ez dela erronka erraza baino helburuaren gorentasunak lanean jarraitza behartzen gaitu, sorburuan eragiteak konponbidetik hurbilago jartzen gaitu eta.

Matrikulazioa eta eskolarizazioa

Aurrera eramaten diren eskolarizazio eta matrikulaziorako hezkuntza politikek zer esan handi dute ere hezkuntza-bazterketan. Urteetan eman den matrikula biziaren kudeaketa sistemaren berrikusketa eman behar da bai, baino ez bakarrik. Berarekin batera berrikusi behar dira eskola maparen barruan eman diren hainbat itunpetze. Aukera publikoa dagoen zonaldeetan berau indartu behar dela deritzogu eta ez itunpeko konpetentzia sortu. Halako erabakiek ikastetxe publikoetan desoreka arriskua ekartzen dute. Horregatik guztiagatik defendatzen dugu inbertsioa sare publikoan gizarte kohesiorako inbertsio zuzena dela eta apostu estrategikoa hezkuntza bazterketaren kontra.

Ikastetxe hautaketaren eskubidearen inguruan

Eskubide honen oinarritzko muga gizartearen onuraren kontra ez joatea da. Eskubide hau ezin da planteatu erabateko eskubide gisa, mugarik gabekoa. Eskura dagoen eskaintzaren arabera da, inguruko gizataldeari eragiten dio eta Konstituzioak dioenarekin talka egiten du. Administrazioari dagokio ongizate orokorraren mesedetan eskubide honen egiazko taxutze, mugatze eta baldintzatze prozesuak ematea hezkuntza bazterketaren aurkako lan honetan sinesgarritasuna irabazteko.

## Kuotak eta hezkuntza merkatua

Egun "de facto" normalizatu diren hainbat jardunbideen aurrean egin diren kontrol lausoek urteetan halakoen aurrean egon den nolabaiteko utzikeria estamentu ezberdinen eskutik eta beste alde batera begiratzeak ezin du jarraipenik izan. Esku hartze zuzenak behar dira. Legeak betetzeko daudela aipatu izan da behin baino gehiagotan hainbat esparrutan, hezkuntzan ere Euskal Eskola Publikoaren legea betetzeko egongo da beraz. Ez da zintzoa interesatzen zaizkigun aspektuen aldarrikapena egitea eta bete beharrei kasurik ez egitea.

Hezkuntza ezin da merkatuaren sal erosketa logikaren gainean eraiki daitekeen prozesu bat izan. Logika horretatik gorago dagoen zerbait dela uste dugu eta horrela gorde beharra dago gizarte osoaren ongizatea nahi badugu. Ikastetxeen arteko kompetentzia sareen arteko zein sare barrukoaren artean, halako edo bestelako berezitasuna nabarmenduz, (ekipamenduak, proiektua, emaitzak, balioak...) ez diote bilatzen dugun helburuari laguntzen eta barne hausnarketa sakon bat egin beharra dugula uste dugu. Guztien arrakasta laguntzen duten dinamikak auspotu behar direla uste dugu eta bide horretan asko dugu irabazteko.

## Hizkuntzaren aldagaia

Adostasun handia izango delakoan gaude Eskola publikoaren esparruan baieztapen honekin: zenbat eta euskara gutxiago geroz eta familia etorkin gehiago eta maila sozioekonomiko baxuagoa. Bi eredu biltzen dituzten ikastetxeetan nabarmen geratzen da hauxe. Euskara kultura unibertsalaren altxorra izateaz gain igogailu sozial paregabea dela uste dugu. Hori hala izan dadin estrategia berriak landu, aztertu eta aplikatu behar ditugu. Gure hizkuntzaren bizirautea eta arrakasta soziala eskutik doazela aldarrikatu eta erakustarazi behar dugu eta hala izan dadin beharrezkoak diren baliabideak aktibatu behar dira arduradun politiko ezberdinen aldetik, lekuko administrazio zein administrazio orokorraren partetik.

Amaitzeko, Heize, Euskal Eskola Publikoa, Gaur Bihar ekimenarekin batera hezkuntza kalitatearen eta hezkuntza arrakastaren ikuspegi integratzailea defendatzen dugu. Eskola Publikoa euskal hezkuntza sistemaren ardatz behar du izan gizarte kohesionatu eta hiritargo osatu baten mesedetan. Eskola Publikoko ikastetxeok elkar hartuta eta elkarreraginez hobetu egiten gara. Ikerketek eta ebidentziek eskaintzen diguten ezagutza berriek ikaskuntza sozio-kultural sakona garatzeko aukera ematen digute.

Ikastetxe guztiok bat egiten dugun kode etiko bateratuaren ispiluan bigiratzen gara non ekitate, inklusio, aniztasunaren aberastasuna eta gure ikasleriaren arrakasta ikusten dugun. Segi dezagun helburu horren mesedetan lanean!!